

**Ebazpena: 71/2014**

**Espedientea: 25/2014**

Vitoria-Gasteizen, 2022ko urriaren 6an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordeak –Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osatuak– honako erabaki hau hartu du:

### **ERABAKIA**

Bizkaiko Foru Aldundiak, (aurrerantzean, BFA) VSSLren zerga-egoitza 2006ko apirilaren 4tik aurrera aldatzearen inguruan, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziarekiko (aurrerantzean, ZAEA) planteatutako gatazkari buruz, zeina 25/2014 espediente-zenbakiarekin izapidetzen ari baita arbitraje batzorde honetan.

### **AURREKARIAK**

1.- VSSL merkataritza-sozietate bat da, ASSLk eta AGISLk 2006ko urtarrilaren 5ean eratuak. Planteatutako gatazkaren ondorioetarako, honako hauek dira VSSLren datu garrantzitsuenak:

- a) Egoitza soziala eta fiskala Bilbon du.

- b) Administratzaile bakar izendatzen da ASSL merkataritza-sozietatea, zeinak egoitza Bilbon duen, eta haren ordez, JAT jauna, zeinak egoitza Bilbon duen.
- c) Bere helburu soziala eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioek sortutako elektrizitatea banatzea eta merkaturatzea da.

**2.-** 2006ko apirilaren 4an, VSSLren Batzar Orokor Unibertsalaren erabakiak eskritura publiko bihurtu ziren, eta, horien artean, honako hauek daude: CAZ andrea administratzaile bakar izendatzea aurrekoaren ordez, zeinak egoitza Ampueron (Kantabria) duen; egoitza Portugaletera (Bizkaia) aldatzea, eta helburu sozialera enpresa-aholkularitzako zerbitzuak ematea gehitzea.

2007ko urtarrilaren 9an, VSSLren Batzar Orokor Unibertsalaren erabakia eskritura publiko bihurtu zen. Horren bidez, FCA jauna (egoitza Madrilen duena) izendatu zuten administratzaile bakar aurrekoaren ordez. 2008an, FCA jaunak Castelldefelsera (Bartzelona) aldatu zuen bizilekua.

**3.-** 2006ko apirilaren 4an, ASSLk eta AGISLk VSSLn zituzten partaidetza sozialak saldu zizkioten CAZ andreari, eta azken horrek, berriz, FCA jaunari saldu zizkion 2007ko urtarrilaren 9an.

**4.-** VSSL 2006ko azaroaren 6tik dago alta emanda Bizkaiko Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren tarifetako 1514 epigrafean (beste inon sailkatu gabeko energia-ekoizpena), eta instalazio fotovoltaiko bat du Reinako (Jaen) VSSLn.

**5.-** Portugaleteko S kalean dago ACU jaunaren jabetzakoa eta ohiko bizilekua den etxebizitza, baina horrek ez du inolako loturarik VSSLrekin.

**6.-** 2013ko irailaren 18an, BFAk ZAEAr jakinarazi zion VSSLren egoitza lurralde erkidera aldatzeko proposamena, horren ondorioak 2006ko apirilaren 4tik aurrera izanik.

**7.-** Bi hilabete igaro ondoren, Ekonomia Itunari eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Erregelamenduari jarraikiz, *ratione temporis* indarrean zeuden idazkeren arabera, ZAEAk proposamen horri erantzun gabe, BFAk 2014ko maiatzaren 30ean planteatu zuen gatazka Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean.

**8-** Gatazka prozedura arruntaren bidez izapidetu da, eta, beraz, bete egin da ZAEAk alegazioak egin eta froga eta dokumentazio egokiak aurkeztu eta proposatzeko izapidea. ZAEAk izapide hori betetzeko epea luzatzeko eskatu ondoren, azkenean, amore emanda, onartu egin da BFAk proposatutako egoitza-aldaketa.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

### **1.-** Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak gatazka ebazteko eskumena du, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, artikulua horrek «Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea» eginkizuna esleitzen baitio.

### **2.-** Amore ematea.

Interesdunik eta, bereziki, zergapekoa bera aurkeztu ez denez, ZAEAk amore emateak, BFAk egindako egoitza-aldaketaren proposamena onartuz, bi

administrazioen arteko gatazka bertan behera geratzea eragin du, eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean bideratzen den prozeduraren xedea gerora desagertzea eta, ondorioz, artxibatzea ekarri du.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

### **ERABAKITZEN DU**

1.- Gatazka artxibatzea prozeduraren xedea gerora desagertu delako, ZAEAk amore eman baitu BFAk VSSLren egoitza aldatzeko egindako proposamenean; 2006ko apirilaren 4tik aurrerantzean izango ditu ondorioak.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta VSSLri jakinaraztea.